



6.ZIRKULARRA

2020-21 Denboraldia

GORENGOEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak, aurtengo denboraldiko Gorengoan lehiaketa antolatu du, honela:

1) KLUB PARTAIDEAK

1. TALDEA			2. TALDEA			3. TALDEA		
1	DUNBOA EGUZKI C.D.		1	URNIETA K.E.		1	BEASAIN S.D.	
2	HONDARRIBIA F.E		2	BILLABONA K.E.		2	ZESTOA K.B. (A)	
3	GURE TXOKOA K.K.E.		3	TOLOSA C.F.		3	IDIAZABAL K.E.	
4	OIARTZUN K.E.		4	ORIOKO F.T.		4	ILINTXA S.D.	
5	PASAIA K.E. (A)		5	USURBIL F.T. (A)		5	ARETXABALETA K.E. UDA	
6	SANPEDROTARRA F.E		6	GETARIAKO KETA F.T.		6	MONDRAGON C.F.	
7	DEUSTO UNIVERSIDAD S.S.C.D.		7	DANENA K.E.		7	SORALUZE C.F.	
8	VASCONIA C.D.		8	ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE		8	IKASBERRI K.E.	
9	ROTETA C.D.		9	HERNANI C.D.		9	ANTZUOLA K.E.	
10	KOSTKAS KE		10	ZUMAIACO F.T.		10	URKI C.D. (A)	
11	AXULAR K.K.E		11	OSTADAR S.K.T.		11	LAGUN ONAK C.D.	
12	SANTO TOMAS LIZEOA							

2) LEHIAKETA SISTEMA

Gorengoan Erregional Ligako txapelketa 34 taldek osatzen dute, hiru multzotan banatuta, 11 taldeko bi eta 12 taldeko bat. Bi fasetan jokatuko da: puntuaren bidez eta bi itzulietara (22 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

22 jardunaldiko lehen fasean, **okerren sailkatutako 9 taldeak Erregional 1. mailara jaitsiko dira**, horretarako, jokatutako partiden artean lortutako puntu kopurua zenbatuz.

A.Igoera fasea:

Multzo baitezkeo Lehen eta bigarren sailkatuek (6) itzuli batera jokatuko dute, Erregional Ohorezko Mailara igotzeko 2 postuak eta maila honetako Txapeldun titulua erabakitzeko.

Hori lortzeko datarik izan ezean, alde batetik lehenak eta bestetik bigarren sailkatuak bananduko liriateke. Edo 3x1 ere lehiatuko litzateke hori lortzeko.

Lehen eta bigarren sailkatuak Erregional Ohorezko mailara igoko dira.

B. Gipuzkoako Kopa:

Gainerako taldeek, lehen fasean jaitsitako 9 taldeek barne, Gipuzkoako Kopa jokatuko dute.

3) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

90 minutu, bost aldaketa eta gehienez 7 ordezko eserlekuan.

4) ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek, posible izango dute, beraien partidua larunbata arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkakoaren baimenik gabe.

5) DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziiplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziiplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenez, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak

6) XEDAPEN OROKORRAK

A) “Koltxoi” mailaren kontzeptua mantendu egiten da, eta beraz maila honetan egon daitezkeen plazak ondoren aipatzen den eran eta hurrenkeran beteko dira:

- a) 1. Erregionalen Mailako talde bat igota.
- b) Gorengoren Mailatik jaitsitako taldeen artean hobeto sailkatu denaren jaitsiera saihestuz.
- c) Eta horrela behin eta berriro.

7) COVIDren ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren lehiaketak garatzeko aplikazio-protokoloa.

Gorengoen Erregional Maila bi faseetan jokatuko du.

Lehiaketan gerta daitezkeen gorabeherak aurreikusi ezinak direla kontuan hartuta eta COVID-19 aren ondorioz ezarritako protokoloek eragin ditzakeen konfinamenduak direla eta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren jarduneko Zuzendaritza Batzordeak honako hau erabaki du:

1.- Lehentasuna ematea lehen faseko partida guztiak amaitzeari, eta, beharrezkoa izanez gero, egutegiaren datak luzatzea, lehiaketa bi faseetan jokatzen duten kategoria guztietan.

2020ko irailaren 17ko Batzar Orokorrean proposatu eta onartutako lehen faseko lehiaketen egutegiak partidurik gabeko asteburu edo jaiegun batzuk aurreikusten ditu, eta horri esker, pandemiagatik atzeratutako norgehiagokak jokatu daitezke.

2.- Lehenengo fasea amaitzea lehenetsi gabe ere ezin bada amaitu, honako hau xedatu da:

2.1.- Lehen fasea.

a) Talde guztiek ezin badute fase honen % 70 jokatu, denboraldia baliogabetzat joko da.

b) Talde guztiek lehen fasearen % 70 gutxienez joka badezakete, baina guztiek ezin badute fase horren % 100 jokatu, koefizientearen irizpidea erabiliko da, hau da, jokaturako partiden artean lortutako puntu kopurua, fase honetako behin betiko sailkapenak zehazteko. Berdinketa gertatuz gero, berdinduta dauden taldeen aldeko eta kontrako golen aldea erabiliko da.

2.2.- Bigarren fasea

a) Bigarren faseko partiden % 70 gutxienez jokutzerik ez badago, baliogabetzat joko da, eta, beraz, behin betiko sailkapenei lehen faseko sailkapenak aplikatuko zaizkie, lehenengo faseko) puntuan zehaztutako irizpideei jarraituz, igoseretarako eta jaitsieretarako.

b) Talde guztiek bigarren fasearen % 70 gutxienez jokutzerik lortuko balute, baina denek ezin badute fase horren % 100a jokatu, koefizientearen irizpidea erabiliko da, hau da, jokaturako partiden artean lortutako puntu kopurua, fase honetako behin betiko sailkapenak zehazteko. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, aldeko eta kontrako golen arteko aldea erabiliko da.

Kontuan hartu beharrekoak:

- Jokatu ezin diren partidak Lehiaketa Batzordeak ezarritako data baino lehen berreskuratu beharko dira, bertan behera utzi diren hurrenkeran, ordena hori aldatu ahal izango da Federazioaren baimenarekin eta COVID-19tik eratorritako arrazoiengatik. Partidarik gabeko asteburuak edo jaiegunak kontuan hartzeko ahalegina egingo da.


- Konfinatuta egon den talde batek hurrengo partida jokatu beharko du, baldin eta konfinamendua asteazkena (barne) baino lehen altxatzen bada, ostegun eta ostiralean saioen bat egiteko denbora daukala ulertuta.

- Klub bakoitzeko COVID arduradunak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio Federazioari kasu positibo bat edo konfinamendu masibo bat duenean, kaltetutako pertsonen kopurua eta Osakidetzak konfinatutako pertsonen normaltasunera itzultzeko eman zaizkien epeak zehaztuz.

- Talde batek atzeratutako jardunaldiari aurre egin ahal izango diola ulertuko da dagokion taldeko federazioan izena emandako jokalarien % 70 gutxienez duenean.

Donostia, 2020ko urria

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Inigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General